



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2023ko urriaren 6a

16. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### E SAILA:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- 11-23/MOC-00039. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita errenta bermatuari buruzko araudia alda dezan. Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioak aurkeztu du (3. or.).
- 11-23/MOC-00040. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Adimen Artifizialak Nafarroako gizartean duen eraginari buruzko prospekzio-lan sakona eta iraunkorra egin dezan. Miguel Garrido Sola jaunak aurkeztu du (4. or.).
- 11-23/DEC-00022. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Murtziako La Fonda, Golden eta Teatre diskoteken sutean hildakoekiko eta haien familia eta hurbilekoekiko elkartasuna adierazten baitu Nafarroako Parlamentuak. Eledunen Batzarrak onetsi du (5. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- 11-23/PES-00103. Galdera, Iruñeko alkatearen txio bati erantzunez Nafarroako lehendakariak "X" sare sozialean botatako mezuari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (6. or.).
- 11-23/PES-00104. Galdera, Erriberriko Udalari banku bat ortzadarraren koloreez margotzeko baimena ukatzeari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (7. or.).
- 11-23/PES-00105. Galdera, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako burutzei buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (8. or.).
- 11-23/PES-00106. Galdera, Nafarroako Foru Komunitatean familia gurasobakarrak egiaztatzeari buruzko otsailaren 7ko 5/2019 Foru Legearen erregelamendu-garapenari buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (8. or.).
- 11-23/PES-00107. Galdera, uztaillean “Kapital transferentziak NUPera: Medikuntzako eraikina” izeneko G10001-G1100-7455-322302 partida 1.906.863 € murriztu izanari buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (9. or.).
- 11-23/PES-00108. Galdera, haur eta nerabeei arreta eta babesa eman eta haien familiak, eskubideak eta berdintasuna sustatzeko maiatzaren 11ko 12/2022 Foru Legearen erregelamendu-garapenari buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (9. or.).

- 11-23/PES-00109. Galdera, Nafarroan desgaitasuna dutenei arreta emateari eta beren eskubideak bermatzeari buruzko azaroaren 28ko 31/2022 Foru Legearen erregelamendu-garapenari buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (10. or.).
- 11-23/PES-00110. Galdera, Erriberriko Udalarri hiriguneko banku bat ortzadarraren koloreez margotzeko baimena ukatzeari buruzkoa. Carlos Guzmán Pérez jaunak egin du (11. or.).
- 11-23/PES-00111. Galdera, Tarazonako eta inguruko herrietako uraren kutsadurak eragindako osasun publikoko krisiari buruzkoa. Félix Zapatero Soria jaunak egin du (12. or.).
- 11-23/PES-00112. Galdera, Alesbesen nitratoek ura kutsatu izanari buruzkoa. Carlos Guzmán Pérez jaunak egin du (13. or.).
- 11-23/PES-00115. Galdera, Nafarroan dauden instalazio erradioaktiboetako buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (14. or.).
- 11-23/PES-00116. Galdera, Nafarroan enplegu publikoa egonkortzeko prozesuari buruzkoa. Miguel Garrido Sola jaunak egin du (15. or.).
- 11-23/PES-00117. Galdera, unibertsitateko bekei eta bigarren edo hurrengo matrikuletan matrikulatutako kredituei buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (15. or.).
- 11-23/PES-00118. Galdera, Palacio Arozteguia, SLk eta Hotel Palacio de Arozteguia, SLk nahiz Arozteguia Jauregiaren inguruan sustatutako turismo-, hotel-, kirol- eta egoitza-eremuaren Udalez gaindiko Plan Sektorialaren Konpentsazio Batzordeak aurkeztutako ondare-erantzukizuneko erreklamazioari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (16. or.).
- 11-23/PES-00119. Galdera, 2016-2022 aldiko tributu-preskripzioei buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (17. or.).

**G SAILA:****Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Miren Uxue Barcos Berruezo andreak foru parlamentari karguari uko egitea (18. or.).
- Talde parlamentarioen ordainsariei buruzko arauen 19. artikulua aldatzea (18. or.).
- 11-23/ELC-00002. Gizarte zerbitzu publikoak kudeatzeko Nafarroako Fundaziorako (Gizain Fundazioa) bi patronatukide hautatzea (19. or.).

---

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **11-23/MOC-00039. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia- tzen baita errenta bermatuari buruzko araudia alda dezan**

### *NAFARROAKO ALDERDI POPULARRA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita errenta bermatuari buruzko araudia alda dezan.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta zuzenketak aurkezteko epea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan buka dadin ezartzea.

Iruñean, 2023ko urriaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Alderdi Popularra talde parlamentarioaren ele-dun Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Nafarroan Gizarteratzeko eta errenta bermaturako eskubideak arautzen dituen 15/2016 Foru Legean jasotako definizioaren arabera, pobrezia egoeran dauden pertsonen nahiz familia-unitateen bizitza duina bermatzeko prestazio ekonomiko bat da errenta bermatua. Pertsona edo familia-unitate horiek jaso dezaketelako edozein diru-sarreraren osagarria da.

Tresna hori –errenta bermatua– beharrezkoa da ziurtatzeko pertsona guztiek dauzkatela eskura bizitza duin baterako eta desberdinkeria ekonomi-

ko eta sozialak murrizteko oinarriko zerbitzuak eta ondasunak. Justifikatutako salbuespenak salbuespen, garrantzitsua da errenta bermatua prestazio koiuntural gisa hartzea, errenta hori beharrezkoa duten pertsonen laguntzera bideratua enplegu bat lortzen duten arte. Hori da bilatu beharreko helburua, hala Nafarroako Gobernuak nola Nafarroako Parlamentuak bultzatu beharko luketena.

Funtsezkoa da ziurta dezagun ezen prestazioa jasotzeko eskubidea duten pertsonak egiaz sartzen direla lan-merkatuan, bestela ez baitu balioko sortzez izan zuen helbururako. Datuek erakusten digutenez, errenta bermatuaren aplikazioa, bere horretan, ez da eraginkorra izaten ari helburu hori lortzeko, enplegua sortzen ari baita baina prestazioa jasotzen ari diren unitateen kopurua ia-ia jaitsi gabe. Horren arrazoia da ia ez dagoela loturarik prestazio ekonomikoaren eta laneratze planaren artean.

Testuinguru zail honetan beharrezkoa da errenta bermatuari buruzko araudia berraztertzea eta lehenbailehen aldatzea Nafarroan, halako moduan non prestazioa zuzenean lotuko baita haren beharra gehien daukaten pertsonak eta familiak laneratzearekin.

Horregatik guztiagatik, honako mozio hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premia-tzen du:

1.- Lehenbailehen alda dezan errenta bermatuari buruzko araudia, horren azken helburua laneratzea izan dadin.

Iruñean, 2023ko irailaren 25ean

Eleduna: Javier García Jiménez

## 11-23/MOC-00040. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita Adimen Artifizialak Nafarroako gizartean duen eraginari buruzko prospekzio-lan sakona eta iraunkorra egin dezan

MIGUEL GARRIDO SOLA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Garrido Sola jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita Adimen Artifizialak Nafarroako gizartean duen eraginari buruzko prospekzio-lan sakona eta iraunkorra egin dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin eta zuzenketak aurkezteko epea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan buka dadin ezartzea.

Iruñean, 2023ko urriaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### MOZIOAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Miguel Garrido Sola jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioen azalpena.

Adimen artifiziala teknologia disruptiboa da, gure produkzio-sistema osoaren egitura aldatzeko ahalmena duena.

2020an, Metaculusek, arrakasta-indize handieneko komunitate prediktiboetako batek, 2040an AA ahula lortuko genuela zioen (zeregin batean espezializatzeko gai, zeregin hori gizaki batek baino hobeki egiteraino). Iaz, urte amaieran, hori 2030ean gertatuko dela zioen, eta aurten, urte hasieran, 2027an gertatuko dela; horrek erakusten du egundoko jauzi kualitatiboa eman dela teknologia horri dagokionez azken hiru urteotan, non 6z biderkatu baita nazioarteko inbertsioa. Ez hori bakarrik: munduan adimen artifizialaren arloan garrantzi handiena duten 352 adituen arteko kontsentsuari erreparatzen badiogu, % 50ek uste du 2061a baino lehen lortuko dugula adimen artifizial orokora, eta % 90ek uste du datozen 100 urteetan lortuko dugula.

Laburbilduz, oso litekeena da hamarkada honetan ikustea adimen artifiziala gai dela pertsonak lanpostu askotan ordezkatzeko, eta mende honetan –datozen 50 urteetan segur aski– ikustea –gutako batzuek bederen– gai dela gizakiok gaur egiten ditugun zereginetako gehien-gehienak efizientzia handiagoarekin egiteko.

Gaitasun disruptibo horrek zer ondorio izan dezake enpleguari begira?

Errealitatea zer sektoretan aztertzen dugun, horren arabera izanen dira adimen artifizial ahularen ondorioak, eta merkatu-eskariaren saturazio-puntuaren mende egonen da batik bat. Adimen artifizial ahula iristean, areagotu egingen da produktibitatea oro har, eta langile gutxiago behar izanen da produktu-unitate bakoitzeko, halako moduan non, ustez, jaitsi egingen baitira prezioak. Hortik aitzina, kasuko merkatuak bestelako portaera bat izaten ahalko du. Prezioak asko jaisten badira ere, zaila da nekazaritzako elikagaien edo ehunkien eskariaren igoera ikus dezagun, horien beharrezana mugatua delako. Halere, litekeena da produktu teknologikoen, denbora-pasakoen edo kulturalen erosketa areagotzea.

Beraz, adimen artifizial ahulak gure produkzio-sisteman eta enpleguan izanen duen inpaktuari buruzko analisi zorrotz eta xehatua egin beharra dago, ia seguru gertatuko diren disruptioei aurrea hartu ahal izateko eta gure ekonomiaren eta gizartearen norabide estrategikoa ezarri ahal izateko, gainean ditugun aldaketak onuragarriak izan daitezen gizarte osoarentzat, zeren eta berez eta inongo aurre-hartze programaturik egon ezean shock handiak eragin baititzakete, enpleguan, desberdinkerian (kapitaleko eta laneko errenten banaketatik) eta produkzio-ahalmenean.

Bestalde, ez gara gauza, apalik diot, ez bederen parlamentari hau eta nire taldea, iraultza ekonomiko eta sozial hori zer izanen den aurrez esateko eta adimen artifizial orokorraren inplikazioak aurreikusteko. Horregatik guztiagatik, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premia-tzen du prospekzio-lan zorrotza eta jarraitua egin dezan, adimen artifizialak gure ekonomian, enpleguan eta oro har gizartean izan dezakeen bilakaerari buruz, Nafarroa iraultza tek-

nologiko hori baliatzeko moduko neurri beharrezkoak aurreratuta, gure erkidegoko jendearen bizitza inor atzean utzi gabe hobetze aldera.

Iruñean, 2023ko irailaren 27an

Foru parlamentaria: José Miguel Garrido Sola

---

## **11-23/DEC-00022. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Murtziako La Fonda, Golden eta Teatre diskoteken sutean hildakoekiko eta haien familia eta hurbilekoekiko elkartasuna adierazten baitu Nafarroako Parlamentuak**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSI DU*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2023ko urriaren 2an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2023ko urriaren 2an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

"1. Nafarroako Parlamentuak Murtziako La Fonda, Golden eta Teatre diskoteken sutean hildakoekiko eta haien familia eta hurbilekoekiko elkartasuna adierazten du.

2. Nafarroako Parlamentuak bere sostengua helarazten die kaltetu guztiei, eta adierazten du sutea sortu zuten zergatiak argitzearen aldeko bere borondatea".

Iruñean, 2023ko urriaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**11-23/PES-00103. Galdera, Iruñeko alkatearen txio bati erantzunez Nafarroako lehendakariak "X" sare sozialean botatako mezuari buruzkoa****ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galdera, Iruñeko alkatearen txio bati erantzunez Nafarroako lehendakariak "X" sare sozialean botatako mezuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko urriaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Irailaren 21ean –osteguna–, 17:05ean, Nafarroako Gobernuko lehendakari María Chiviteren "X" sare sozialeko kontu ofizialak honako mezu hau bota zuen: "Ba espero dut zure hiri-ereduak Madrilgoarekin zerikusirik ez izatea". Mezu horren bidez, Madrilgo alkate José Luis Martínez-Almeidarekin izandako topaldi instituzional bat dela-eta Cristina Ibarrola Iruñeko alkateak sare sozial berean botatako beste bati erantzuten zion; handik gutxira, mezua ezabatu zuen. Hori dela-eta, honako hau jakin nahi dut:

1. Nafarroako Gobernuko lehendakariak zergatik egin zion Iruñeko alkateari halako komentario hori aipatu sare sozialaren bidez?

2. Nafarroako Gobernuko lehendakariak zergatik ezabatu zuen komentario hori, argitaratu eta denbora gutxira?

3. Nafarroako Gobernuko lehendakariak ez al du uste badela hori baino bide egokiagorik Iruñeko alkateari zuzentzeko?

Iruñean, 2023ko abuztuaren 22an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

## 11-23/PES-00104. Galdera, Erriberriko Udalari banku bat ortzadarraren koloreez margotzeko baimena ukatzeari buruzkoa

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, Erriberriko Udalari banku bat ortzadarraren koloreez margotzeko baimena ukatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko urriaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak, Erregelamenduko 215. artikuluan ezartzen denari jarraikiz, galdera hauek aurkezten ditu, idatziz erantzun dakien:

Hil honen 23an, LAIAK Erdialdeko LGTBiq+ kolektiboaren IV. sariak eman ziren Tafallako Kulturegunean. Ekitaldian jakin genuenez, Nafarroako Gobernuak –Vianako Printzea Erakundea-Kultura Departamentuak– ez dio Erriberriko Udalari baimenik eman plazako bankuetako bat ortzadarraren koloreez margotu dezaten, LGTBiq+ kolektiboak askatasunaren, duintasunaren eta errespetuaren alde daraman borrokaren aldeko sinbolo gisa.

Ortzadarraren bandera AEBetan diseinatu zuen eskubide zibilen aldeko artista plastiko eta ekintzaile Gilbert Baker-ek, eta aniztasunaren sinbolo bihurtu zen 1978tik aitzina.

Horregatik, honako galdera hauei idatziz erantzutea eskatzen dut:

1.- Egia al da Vianako Printzea Erakundeak Erriberriko Udalari ukatu egin diola plazako banku bat ortzadarraren koloreez margotu ahal izatea?

2.- Vianako Printzea Erakundea zerk eraman du jarrera hori hartzera?

3.- Nafarroako Berdintasunerako Institutuak izan al du uko horren berri? Zergatik ez da saiatu zuzentzen berdintasunaren eta aniztasunaren aldeko borroka irudikatzen duen sinbolo hori gutxiesten duen erabaki hori? Nafarroako Berdintasunerako Institutuak inoiz eskatu al dio Vianako Printzea Erakundeari baimena eman zezan banku hori margotzeko?

4.- Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentuaren ustez, banku hori ortzadarraren koloreez margotzearen kasuan –horrek esan nahi duenarekin– amore eman beharko al litzateke Vianako Printzea Erakundearen iritzieren aurrean, zeinen arabera bankua margotuko balitz eraso egingen bailitzaioke Erriberriko Multzo Historikoak erakusten duen kultura-intereseko ondasunari?

5.- Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik, Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentuaren bitartez ala Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren bitartez zuzentzeko berdintasunaren eta sexu-aniztasunaren aldeko borrokan ortzadarraren koloreek irudikatzen dutenaren aurka eraso hori? Zer neurri hartuko du Erriberriko Udalak aipatu kolorez banku bat margotu ahal izan dezan Erriberriko Multzo Historikoaren barruan?

6.- Nafarroako Gobernuaren izenean zergatik ez zen inor joan LAIAK Erdialdeko LGTBiq+ kolektiboaren sari-banaketara, berariaz gonbidatuta egon arren?

Iruñean, 2023ko irailaren 25ean

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

## **11-23/PES-00105. Galdera, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako burutzei buruzkoa**

*RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak egindako galdera, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako burutzei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko urriaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Legegintzaldiko lehenbiziko agerraldian, kontseilariak oinarrizko gizarte zerbitzuetako burutzen sorrera aipatu du. Noren mende egonen dira?

Iruñean, 2023ko irailaren 25ean

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

---

## **11-23/PES-00106. Galdera, Nafarroako Foru Komunitatean familia gurasobakarrak egiaztatzeari buruzko otsailaren 7ko 5/2019 Foru Legearen erregelamendu-garapenari buruzkoa**

*RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak egindako galdera, Nafarroako Foru Komunitatean familia gurasobakarrak egiaztatzeari buruzko otsailaren 7ko 5/2019 Foru Legearen erregelamendu-garapenari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko urriaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Zertan da Nafarroako Foru Komunitatean familia gurasobakarrak egiaztatzeari buruzko otsailaren 7ko 5/2019 Foru Legearen lehen xedapen gehigarriko alderdi bakoitzaren erregelamendu bidezko garapena, sei hilabeteko epeari begira?

Iruñean, 2023ko irailaren 25ean

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces



## **11-23/PES-00107. Galdera, uztailean “Kapital transferentziak NUPera: Medikuntzako eraikina” izeneko G10001-G1100-7455-322302 partida 1.906.863 € murriztu izanari buruzkoa**

*CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, uztailean “Kapital transferentziak NUPera: Medikuntzako eraikina” izeneko G10001-G1100-7455-322302 partida 1.906.863 € murriztu izanari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko urriaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten dio Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariari, idatziz erantzun dakion:

Uztailean zergatik murriztu da -1.906.863 €-G10001-G1100-7455-322302 partida, “Kapital transferentziak NUPera: Medikuntzako eraikina” izenekoa?

Iruñean, 2023ko irailaren 25ean

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

## **11-23/PES-00108. Galdera, haur eta nerabeei arreta eta babesa eman eta haien familiak, eskubideak eta berdintasuna sustatzeko maiatzaren 11ko 12/2022 Foru Legearen erregelamendu-garapenari buruzkoa**

*RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak egindako galdera, haur eta nerabeei arreta eta babesa eman eta haien familiak, eskubideak eta berdintasuna sustatzeko maiatzaren 11ko 12/2022 Foru Legearen erregelamendu-garapenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko urriaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Zertan da Haur eta nerabeei arreta eta babesa eman eta haien familiak, eskubideak eta berdintasuna sustatzeko maiatzaren 11ko 12/2022 Foru Legearen azken xedapenetako bosgarrenean jasotzen diren alderdien erregelamendu-garapena?

Hau da, gutxienez, 34. artikulua (c letra), 38. artikulua (2 g letra), 43. artikulua (2 e letra), 50. artikulua (1. apartatua), 75. artikulua (1. apartatua), 76. artikulua (2. apartatua), 110. artikulua (2. apartatua), 117. artikulua (3. apartatua),

120. artikulua (g apartatua), 121. artikulua, 136. artikulua (h apartatua), 140. artikulua (1. apartatua), 145. artikulua (2. apartatua), 146. artikulua (1. apartatua), 149. artikulua (1. apartatua), 151. artikulua, 152. artikulua (3. apartatua), 153. artikulua (5. apartatua), 158. artikulua (1. apartatua) eta 164. artikulua (1. apartatua).

Iruñean, 2023ko irailaren 25ean

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

---

## **11-23/PES-00109. Galdera, Nafarroan desgaitasuna dutenei arreta emateari eta beren eskubideak bermatzeari buruzko azaroaren 28ko 31/2022 Foru Legearen erregelamendu-garapenari buruzkoa**

*RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak egindako galdera, Nafarroan desgaitasuna dutenei arreta emateari eta beren eskubideak bermatzeari buruzko azaroaren 28ko 31/2022 Foru Legearen erregelamendu-garapenari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko urriaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Nafarroan desgaitasuna dutenei arreta emateari eta beren eskubideak bermatzeari buruzko azaroaren 28ko 31/2022 Foru Legearen azken xedapenetako bederatzigarrenean ezartzen da erregelamendu bidez garatuko direla hainbat artikulua eta apartatu. Zertan da horien garapena?

Xedapen horretako 1. apartatuan eta 2. apartatuan jasotzen diren artikulua eta apartatu guztietarako erantzun banakakoa ematea eskatzen dut. 1.aren kasuan, garapena sei hilabetean egin behar zen, eta 2.ean, aldiz, urtebetean.

Iruñean, 2023ko irailaren 25ean

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

## **11-23/PES-00110. Galdera, Erriberriko Udalari hiriguneko banku bat ortzadarraren koloreez margotzeko baimena ukatzeari buruzkoa**

*CARLOS GUZMÁN PÉREZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Carlos Guzmán Pérez jaunak egindako galdera, Erriberriko Udalari hiriguneko banku bat ortzadarraren koloreez margotzeko baimena ukatzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko urriaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Carlos Guzmán Pérez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan.

Jakin dugunez, Erriberriko Udalari ukatu egin zaio herriguneko bankuetako bat LGTBI+ kolektiboaren ortzadarraren koloreez margotzeko baimena. Nafarroako Gobernuak horretarako darabilen arrazoa da Erriberriko Errege Jauregia eta ingurunea Kultura-intereseko Ondasun gisa daudela katalogatuta.

1. Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du informazio hori dela-eta?

2. Benetako aukerarik ba al da Nafarroako Gobernuak Erriberriko Udalari bankua margotzeko baimena eman diezaion?

Iruñean, 2023ko irailaren 25ean

Foru parlamentaria: Carlos Guzmán Pérez

## 11-23/PES-00111. Galdera, Tarazonako eta inguruko herrietako uraren kutsadurak eragindako osasun publikoko krisiari buruzkoa

*FÉLIX ZAPATERO SORIA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Félix Zapatero Soria jaunak egindako galdera, Tarazonako eta inguruko herrietako uraren kutsadurak eragindako osasun publikoko krisiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko urriaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Félix Zapatero Soria jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean,

honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Ikusita Tarazonako eta inguruko herrietako uraren kutsadurak eragindako osasun publikoko krisia, bi aste geroago Tarazonako herritarrek konponbiderik gabe jarraitzen dutenez eta debekatuta dagoenez sareko ura kontsumitzea, eta bertako 400 bizilaguni baino gehiagori ondoeza eragin dienez jada Queiles ibaiaren tartean aurkitutako "cryptosporidium" izeneko parasitoaren ookisteak agertzeak, honako hau jakin nahi da:

- Jakin nahi dugu zer komunikazio izan diren Aragoiko eta Soriako gobernuekin egoera hori ikusita, eta zer neurri hartu dituen Nafarroako Gobernuak, kaltetutako herri horietatik hurbil dauden Nafarroako herrietan izan dezaketen eraginaren aurrean.

- Eta laginketarik eta analisisirik egin ote den bilketa-puntuetan edo Queiles ibaiaren tartean, populazio horietatik igarotzen denean, eta zer emaitza izan dituzten.

Iruñean, 2023ko irailaren 24an.

Foru parlamentaria: Félix Zapatero Soria

## 11-23/PES-00112. Galdera, Alesbesen nitratoek ura kutsatu izanari buruzkoa

CARLOS GUZMÁN PÉREZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Guzmán Pérez jaunak egindako galdera, Alesbesen nitratoek ura kutsatu izanari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko urriaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Carlos Guzmán Pérez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Joan den irailaren 18an –astelehena–, Alesbesko Udalak komunikatu bat atera zuen, honako

hau zioena: "Egun hauetako ekaitzak direla-eta, Morantetik andelera sartzen ari zaigun urak uher-tasun handia du, eta, horren ondorioz, ura ez da kontsumorako egokia".

Tu Agua, Tu Tierra/Zureur, Zurelur elkarteak jakinarazi du etxeetako iturriko uretako nitratoen analisiak egiten ari dela, eta 60 mg/L-ko nitrato-indizeak detektatu direla.

Irailaren 23an, Alesbesko Udalaren beste komunikatu batean berriz ere jakinarazi zenez, "Uher-tasun-mailak nabarmen murriztu dira, baina oraindik ere baimendutako mailatik kanpo gaude, eta, beraz, ura oraindik ez da egokia".

Horiek horrela, hauxe jakin nahi dugu:

1. Nafarroako Gobernua nitratoen neurketarik egiten ari al da Alesbeko uretan?

2. Nafarroako Gobernuaren ustez, zein izan daiteke Alesbesko urak kutsatu dituen nitratoaren jatorria?

3. Nafarroako Gobernuak zer irtenbide eskain dezake Alesbesko biztanleek kalitatezko ura modu jarraituan eskura dezaketela ziurtatzeko?

Iruñean, 2023ko irailaren 26an

Foru parlamentaria: Carlos Guzmán Pérez

## 11-23/PES-00115. Galdera, Nafarroan dauden instalazio erradioaktibo**ei buruzkoa**

*ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, Nafarroan dauden instalazio erradioaktibo**ei buruzkoa.**

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko urriaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak, Erregelamenduko 215. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, galdera hauek aurkezten ditu, idatziz erantzun dakien:

Segurtasun Nuklearreko Kontseiluak Diputatuen Kongresuari eta Senatuari 2022an egindako txostenean, zeina Parlamentura bidali baita, adierazten da Nafarroako Foru Komunitatean 28 instalazio erradioaktibo daudela guztira, eta horietatik 22 2. kategoriakoak eta 6 3. kategoriakoak direla.

Galdera hauei idatziz erantzutea eskatzen dut:

1.- Txosten horretan, 2. kategoriako arteen, ikerkuntzarekin eta irakaskuntzarekin lotutako instalazio erradioaktibo bat aipatzen da. Nor da instalazio horren titularra eta non dago Nafarroan instalazio hori?

2.- Txosten horretan, 2. kategoriako arteen, industriako 16 instalazio erradioaktibo aipatzen dira. Nortzuk dira instalazio horien titularrak eta non daude Nafarroan instalazio horiek?

3.- Txosten horretan, 2. kategoriako arteen, medikuntzako 5 instalazio erradioaktibo aipatzen dira. Nortzuk dira instalazio horien titularrak eta non daude Nafarroan instalazio horiek?

4.- Txosten horretan, 3. kategoriako arteen, ikerkuntzarekin eta irakaskuntzarekin lotutako instalazio erradioaktibo bat aipatzen da. Nor da instalazio horren titularra eta non dago instalazio hori?

5.- Txosten horretan, 3. kategoriako arteen, industriako 4 instalazio erradioaktibo aipatzen dira. Nortzuk dira instalazio horien titularrak eta non daude Nafarroan instalazio horiek?

6.- Txosten horretan, 2. kategoriako arteen, medikuntzako instalazio erradioaktibo bat aipatzen da. Nor da instalazio horren titularra eta non dago Nafarroan instalazio hori?

Iruñean, 2023ko irailaren 27an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

## 11-23/PES-00116. Galdera, Nafarroan enplegu publikoa egonkortzeko prozesuari buruzkoa

*MIGUEL GARRIDO SOLA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Garrido Sola jaunak egindako galdera, Nafarroan enplegu publikoa egonkortzeko prozesuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko urriaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Miguel Garrido Sola jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako Departamentuak idatziz erantzun dezan:

1.- Zertan da Nafarroako enplegu publikoaren egonkortze-prozesua? Zein izanen da egoera urtea amaitzean?

Iruñean, 2023ko irailaren 27an

Foru parlamentaria: José Miguel Garrido Sola

## 11-23/PES-00117. Galdera, unibertsitateko bekei eta bigarren edo hurrengo matrikuletan matrikulatutako kredituei buruzkoa

*CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, unibertsitateko bekei eta bigarren edo hurrengo matrikuletan matrikulatutako kredituei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko urriaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten dio Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariari, idatziz erantzun dakion:

– Nafarroan unibertsitatean 2020-2021 ikasturtean sartu berri ziren ikasle bekadunen % 38,5ek galdu zuen beka hurrengo ikasturtean. Nafarroako Gobernuaren ustez, zeri zor zaio hori?

– Bekadunentzako bigarren edo hurrengo matrikuletan matrikulatutako kredituen ehunekoa gutzitzkoaren % 2,9 baino ez zen izan Nafarroan 2021-2022 ikasturtean; bekadunak ez diren biztanleen kasuan, berriz, % 15,8koa izan zen. Nafarroako Gobernuaren ustez, zeri zor zaio hori?

Iruñean, 2023ko irailaren 28an

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

## **11-23/PES-00118. Galdera, Palacio Arozteguia, SLk eta Hotel Palacio de Arozteguia, SLk nahiz Aroztegia Jauregiaren inguruan sustatutako turismo-, hotel-, kirol- eta egoitza-eremuaren Udalez gaindiko Plan Sektorialaren Konpentsazio Batzordeak aurkeztutako ondare-erantzukizuneko erreklamazioari buruzkoa**

*ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, Palacio Arozteguia, SLk eta Hotel Palacio de Arozteguia, SLk nahiz Aroztegia Jauregiaren inguruan sustatutako turismo-, hotel-, kirol- eta egoitza-eremuaren Udalez gaindiko Plan Sektorialaren Konpentsazio Batzordeak aurkeztutako ondare-erantzukizuneko erreklamazioari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko urriaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun dakien:

Nafarroako Kontseiluak 37/2022 Irizpena eman zuen 2022ko azaroaren 14an, Palacio Arozteguia SL eta Hotel Palacio de Arozteguia SL merkataritza-sozietateen eta Aroztegia Jauregiaren inguruan sustatutako turismo-, hotel-, kirol- eta egoitza-eremuaren Udalez gaindiko Plan Sektorialaren Konpentsazio Batzordearen izenean Salvador Urbistondo Arotzarenak aurkeztutako ondare-erantzukizuneko espedientea dela-eta.

Merkataritza-sozietateek eta Konpentsazio Batzordeak aurkeztutako erreklamazioaren arabera, ustezko ondare-kaltea 44.395.854,13 eurokoa zen guztira.

Nafarroako Kontseiluak emandako irizpenak berretsi egiten du Nafarroako Gobernuaren jarraera, eta Palacio Arozteguia SL eta Hotel Palacio de Arozteguia SL merkataritza-sozietateek eta Aroztegia Jauregiaren inguruan sustatutako turismo-, hotel-, kirol- eta egoitza-eremuaren Udalez gaindiko Plan Sektorialaren Konpentsazio Batzordeak aurkeztutako erreklamazioa onartzearen aurka azaltzen da.

Horrenbestez, gai hauei idatzizko erantzuna ematea eskatzen dugu:

1.- Amaitu al da Palacio Arozteguia SL eta Hotel Palacio de Arozteguia SL merkataritza-sozietateek eta Aroztegia Jauregiaren inguruan sustatutako turismo-, hotel-, kirol- eta egoitza-eremuaren Udalez gaindiko Plan Sektorialaren Konpentsazio Batzordeak aurkeztutako ondare-erantzukizuneko erreklamazioaren gaineko administrazio-prozedura, zeinaren bidez 44.395.854,13 euroko kalte-ordaina eskatzen baitzuten? Noiz amaitu zen eta zein izan zen hartu zen administrazio ebazpena?

2.- Administrazio-ebazpena eskatutako kalte-ordaina onartzearen aurkakoa izan baldin bada, ebazpenaren aurkako administrazioarekiko auzi-errekurtsorik aurkeztu al dute erreklamazioaren egileek?

Iruñean, 2023ko irailaren 28an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique



## 11-23/PES-00119. Galdera, 2016-2022 aldiko tributu-preskripzioei buruzkoa

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, 2016-2022 aldiko tributu-preskripzioei buruzkoa.
2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.
3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko urriaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak, Erregelamenduko 215. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, honako galdera hauek aurkezten ditu, idatziz erantzuteko:

- 1.- Hirugarrenen Kontabilitate Osagarritik lortzen den informazioaren arabera, zein da 2016-2022 aldian preskribatutako zenbatekoa?
- 2.- Zein da, urtez urte xehakatuta, preskribatutako zenbatekoa?
- 3.- Zein da zenbatekoa, zerga-figuren arabera xehakatuta (PFEZ, SZ, BEZ...)?
- 4.- Zenbat zergaduni eragiten diote preskripzio horiek?

5.- Zergadun horietatik, zeintzuk dira pertsona fisikoak eta zeintzuk pertsona juridikoak, motaren arabera?

6.- Zenbat zergadunek gairitzen zuen preskribatutako milioi erdi euroko zorra eta zenbatek milioi bat euroko zorra?

7.- Zenbat zergadunek zuen 500 eurotik beherako zor preskribatua?

8.- Zenbat zordun dira entitatearen likidazioarekin bukatzen zen hartzekodunen konkurtsoan zeuden entitateak?

9.- Zer portzentaje egiten dute preskripzioek, urteko ekitaldien arabera, tributu bidezko diru-sarrerara aitortuen eta preskripzio urteko diru-bilketaren aldean?

10.- Zer portzentaje egiten dute preskripzioek, ekitaldien arabera, premiamendu bidezko zordunen saldoaren aldean?

11.- Zorraren zenbat deklaratu da kobraezina ekitaldi bakoitzean?

12.- Zenbat aitorten deklaratu ziren kobraezin ekitaldi horietan eta zein zen zorraren zenbatekoa?

13.- Erantzukizun solidario edo subsidiarioen zenbat deribazio egin ziren urte horietan, zenbat pertsonari eragin zioten eta zer zenbateko deribatu zen? Zer kopuru deribatu kobratu zuen egiaz Nafarroako Ogasunak?

14.- Ezarri al du Nafarroako Ogasunak zerga-erantzukizuneko deribazioetarako automatizazio-prozedurarik?

Iruñean, 2023ko irailaren 28an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Miren Uxue Barcos Berruezo andreak foru parlamentari karguari uko egitea**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 2an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Foru parlamentari Miren Uxue Barcos Berruezo andreak aurkeztutako uko-idazkia dela-eta, honako hau ERABAKI DA:

**1.** Jasotzat ematea Miren Uxue Barcos Berruezo andreak aurkeztutako idazkia, uko egitekoa foru parlamentari izaerari, zeina lortu baitzuen api-

rilaren 4ko 3/2023 Foru Dekretuaren bidez deituriko Nafarroako Parlamenturako hauteskunderetan (68. zenbakiko NAO, 2023ko apirilaren 4koa), Geroa Bai hautagaitzaren barruan.

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko urriaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

## **Talde parlamentarioen ordainsariei buruzko arauen 19. artikulua aldatzea**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 2an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako zerbitzuburuak Mahaiari igorri dio, Zerbitzu Juridiko oniritziarekin, Talde parlamentarioen ordainsariei buruzko arauak aldatzea proposatzen duen txosten bat, horiek eguneratze aldera Kontuen Ganberaren eta Kontuen Auzitegiaren gomen-dioak sartuta, talde parlamentarioen ekarpenei dagokienez.

Ondorioz, dokumentazioa aztertu ondoren, eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 42. artikulua ezarritakoarekin bat, hona ERABAKIA:

**1.** Aldatzea Talde parlamentarioen ordainsariei buruzko arauen 19. artikulua. Hona testu berria:

Artikuluaren lehen paragrafoari honako testu hau gehitu zaio:

“Talde parlamentarioek Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuan aurkeztuko dute, urteko kontuekin batera, alderdi politikoekin eginiko lankidetzaren hitzarmena, non jasoko baitira alderdi politikoei taldeei ematen dizkieten zerbitzuak”.

**2.** Aldaketa Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea, eta 2024ko urtarrilaren 1ean indarrean sartuko dela ezartzea.

Iruñean, 2023ko urriaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## 11-23/ELC-00002. Gizarte zerbitzu publikoak kudeatzeko Nafarroako Fundaziorako (Gizain Fundazioa) bi patronatukide hautatzea

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 2an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak 2023ko irailaren 18an idazki bat igorri dio Nafarroako Parlamentuari, zeinaren bidez eskatzen baitu Parlamentuak izenda dezala Gizarte zerbitzu publikoak kudeatzeko Nafarroako Fundaziorako (Gizain Fundazioa) patronatukide bat eta berriro izenda Inés Sáenz de Pipaón patronatukidearen izendapena, edo, hala badagokio, beste pertsona bat izenda dezala, Fundazioaren estatutuen 14.2.b artikulua xedatutakoarekin bat, zeinak agintzen baitu Nafarroako Parlamentuari dagokiola berak izendatu beharreko patronatukideak hautatzea Fundazioaren xedeei lotutako pertsona edo erakundeen eta enpresen, publiko zein pribatuen, artean.

Estatutuen 8.1. artikulua arabera, "Fundazioaren helburua da honako hauek zuzenean kudeatzea, egitea eta egikaritzea:

- Gizarte zerbitzuetako zentroak,
- Babesgabetasuna edo gizarte gatazkako egoerak dituzten adingabekoentzako behaketa-eta harrera-zerbitzuak,
- Eguneko zentroa, neurri judizialak ingurune irekian betetzeko zerbitzuaren barruan.
- Emakumeen kontrako indarkeriaren arretarako zentroak.
- Gizarte zerbitzuen, berdintasunaren, gizarteratzearen eta laneratzearen arloko beste zentro eta zerbitzu batzuk.

Aipatu zerbitzuak eskainiko dira gizarte zerbitzuen, berdintasunaren, gizarteratzearen, laneratzearen, adingabeen babesaren eta emakumeen kontrako indarkeriaren arloan indarrean dagoen araudian finkatutako baldintzen arabera.

Zerbitzu horiek nagusiki Fundazioak eman beharko ditu, eta ezin izanen ditu hirugarrenen eskutan utzi inongo negozio juridikoren bidez".

Era berean, hautagaitzak Fundazioaren xedeei lotutako pertsonak edo erakunde eta enpresek, publiko edo pribatuak, osatuko dituzte, eta Fundazioaren Estatutuen 14.1 artikuluan ezarritako gaitasunari buruzko betekizunak bete beharko dituzte: "Patronatuko kideak izaten ahalko dira jarduteko gaitasun osoa duten eta kargu publikoetan aritzeko ezgaituta ez dauden pertsona fisikoak.

Pertsona juridikoak Patronatuko kideak izaten ahalko dira, eta horiek ordezkatzeko dituen/dituzten pertsona fisikoak/fisikoak hautatu beharko dute/dituzte, aurreko paragrafoan xedatutakoa betez".

Legebiltzarreko Erregelamenduan ez da izendapen hori egiteko prozedurarik aurreikusten; beraz, Erregelamendu horren 42.1.9. artikuluan ezarritakoaren babesean, bidezkoa da Mahaiak, Eledunen Batzarrarekin bat, hautespen hori erregulatzen duten arauak onets ditzan.

Aipatu artikuluan eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 42.1.9. artikuluan ezarritakoarekin bat, eta Eledunen Batzarrarekin bat, honako hau ERABAKI DA:

**Lehena.** Nafarroako Parlamentuak gizarte zerbitzu publikoak kudeatzeko Nafarroako Fundaziorako izendatu beharreko bi patronatukide hautatzeko prozedura hastea.

**Bigarrena.** Honako arau hauek onestea:

"1. Nafarroako Parlamentuak Fundazioaren xedeei lotutako bi pertsona edo entitate eta enpresa, publiko edo pribatuak, hautatuko ditu, gizarte zerbitzu publikoak kudeatzeko Nafarroako Fundazioaren Patronatuko kide izan daitezten.

2. Talde parlamentarioek eta foru parlamentarien elkarteak, banaka nahiz batera, Fundazioaren xedeei lotutako bi pertsonaz edo erakunde eta enpresaz, publiko edo pribatuak, osatutako hautagaitzak aurkezten ahalko dituzte, zeinek Fundazioaren Estatutuen 14.1 artikuluan ezarritako gaitasunari buruzko betekizunak bete beharko baitituzte.

3. Talde parlamentarioek eta foru parlamentarien elkarteak hautagaitzak aurkezteko idazki bat helaraziko diote Legebiltzarreko Mahaiari, eta idazki horretan jasota ageriko dira proposatutako hautagaien onarpena eta kargu publikoetarako desgaitua ez egotearen aitorpena.

4. Talde parlamentarioek eta foru parlamentarien elkarteak gizarte zerbitzu publikoak kudeatzeko Nafarroako Fundazioaren Patronatukide izateko hautagaiak aurkezteko epea 2023ko urriaren 19ko 17:30ean bukatuko da.

5. Hautagaitzak aurkezteko epea bukatuta, Mahaiak kalifikatuko du proposatutako hautagaiak 2. eta 3. arauetan eskaturiko baldintzak betetzen

ote dituzten, eta, jarraian, kasua bada, hautagaiak aldarrikatuko ditu.

6. Gizarte zerbitzu publikoak kudeatzeko Nafarroako Fundazioaren Patronatukidearen hautaketa Legebiltzarreko Osoko Bilkuran egingen da, isilpeko bozketaren bidez.

7. Txartelen bidez egingen da bozketa, eta foru parlamentari bakoitzak bi izen jartzen ahalko ditu txartelean.

8. Mahaiak botoak zenbatuko ditu eta boto gehien lortu dituzten hautagaiak aldarrikatuko ditu.

9. Proposamenean eragina izan dezaketen balizko berdinketak ebatziko dira boto kopuru bera lortu duten hautagaien arteko beste bozketa baten bidez. Berdinketak bere horretan baldin badirau, boto kopuru bera lortu duten hautagaien arteko bozketak egingen dira, harik eta berdinketa hautsi arte”.

**Hirugarrena.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko urriaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias